

Biztanleria landunak % 1,1 egin du behera eta langabezia tasa 0,6 puntu igo da 2011ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn

Biztanleria landunak 9.900 pertsonatan egin du behera

Eustaten datuen arabera, 2011ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEko lan-merkatuan 928.700 landun izan dira, hau da, aurreko hiruhilekoaren aldean 9.900 landun gutxiago (-% 1,1). Bestalde, Euskal AEko langabezia tasa % 11,2 izan da, 2011ko hirugarren hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,6 puntu gehiago.

Landunen eta langabetuen bilakaera aztertuta, jarduera tasa % 55,8 izan da 2011ko laugarren hiruhilekoan, hots, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,2 puntu txikiagoa.

Okupazioaren beherakadak batez ere gizonengan izan du eragina: aurreko hiruhilekoan baino 9.700 gizon gutxiago egon dira lanean; emakume okupatuak 200 gutxiago izan dira. Hiru lurraldeotan egin du okupazioak behera: Bizkaian 6.100 lanpostu garbi gutxiago izan dira; Araban eta Gipuzkoan 2.600 eta 1.200 gutxiago izan dira, hurrenez hurren.

Biztanleria landunak behera egin du sektore guztietan

Industriaren sektorean landunen kopuruak behera egin du (- 4.500). Eraikuntzan landunak 2.900 gutxiago izan dira, eta zerbitzuen sektorean 2000 gutxiago. Nekazaritzan ere landunen kopuruak behera egin du (- 400).


Enplegu tasa, 16 eta 64 urte arteko pertsona guztiak kontuan hartuta landunak direnen ehunekoa, % 64 izan da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,5 puntu txikiagoa alegia. Gizonezkoen kasuan tasa hori % 68,2 izan da eta emakumezkoen kasuan % 59,7.

Lurralde historikoetan, enplegu tasarik altuena Gipuzkoan gertatu da (% 67,3), aurreko hiruhilekoaren aldean aldaketarik gabe; bigarren tasarik altuena Arabak izan du (% 64,9), aurrekoan baino puntu bat txikiagoa; azkenik Bizkaia tasarik txikiena izan du (% 61,8), azken hiruhilekoan 0,7 puntuko jaitsierarekin.

Lan-kontratu mugagabedun 5.200 soldatapeko gutxiago izan dira, guztira 591.600; aldi baterako kontratua duten soldatapekoak (kontraturik ez dutenak barne) 6.200 gutxiago izan dira, beraz, guztira 173.900. Soldatapekoak ez diren okupatuak aurreko hiruhilekoan baino 1.400 gehiago dira, guztira 163.200.

Zenbatespenen arabera, 2011ko laugarren hiruhilekoan Euskal AEn 849.100 bat etxegune daude (aurreko hiruhilekoan baino 900 gehiago) eta etxeguneen herenak ez dauka pertsona aktiborik. Hamar etxegunetik ia seitan pertsona aktibo guztiak daude okupatuta, aurreko hiruhilekoan baino 8.400 familia gutxiago; gainera, pertsona aktibo guztiak langabezian dituzten 37.700 etxegune daude (guztizkoaren % 4,4), aurreko hiruhilekoan baino 1.800 gehiago.

Biztanleria okupatuaren joera, 1985etik. Euskal AE. (Milakotan)



Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Langabezia tasa % 10,6tik % 11,2ra igo da

Urteko laugarren hiruhileko honetan, Euskal AEko langabetu kopurua 116.900 izan dela zenbatetsi da, aurreko hiruhilekoan baino 5.500 gehiago. Lan bila ari diren, lana bilatzeko kudeaketa aktiboak egiten dituzten eta lanerako prest dauden pertsonak jotzen dira langabetutzat. Laugarren hiruhilekoan, gizonetzkoen artean 69.000 langabetu egon dira, hau da, 4.000 gehiago; emakumezkoen artean 1.500 langabetu gehiago egon da (guztira 47.900).

2011ko laugarren hiruhilekoko datuen arabera aldi horretako langabezia tasa % 11,2 izan da, aurreko hiruhilekoan baino 0,6 puntu gehiago. Gizonetzkoen langabezia tasa % 12,1era igo da (ehuneko 0,8 puntu gehiago) eta emakumezkoena 10,1era heldu da (ehuneko 0,3 puntu gehiago). Gazteen langabezia tasa oraindik altuena da, %24,2koa hain zuzen, langabeziak 16-24 urte bitarteko 11.400 gazte aktiboengan eraginez.

Lurralde historikoetan, langabetu kopuruan igoerarik handiena izan duena Bizkaia izan da (+ 3.300 pertsona); lurralde honetako langabezia tasa % 14,2 izan da. Gipuzkoan 26.800 langabetu izan dira, 1.800 pertsona gehiago, langabezia tasa % 8an utziz. Araban, aurreko hiruhilekoan baino 400 pertsona gehiago egon da langabezian; lurralde horretako langabezia tasa % 7,3 izan da.

EUROSTATen arabera -Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa-, 2011ko azaroan 27 kideko Europar Batasunean langabezia tasa % 9,8 izan da, eta Espainian % 22,9.

Azken urtean 12.700 langabetu gehiago izan da Euskal AEn

Euskal AEko biztanleria landunaren kopuruak behera egin du 2010eko laugarren hiruhilekoaren aldean: guztira 13.400 gutxiago izan dira landunak (-% 1,4). Beherapen hori gizonetzkoen artean izan da nagusi, 19.600 enplegu gutxiagorekin; emakume landunen kopuruak, ordea, 6.200 pertsonatan egin du gora.

Langabezia tasa azken urte honetan ehuneko 1,2 puntu gehitu da (% 10etik % 11,2ra); beraz, 12.700 langabetu gehiago egon da Euskal AEn, 2010eko laugarren hiruhilekoko datuekin alderatuta. Lurraldeka, Bizkaian langabezia tasa ehuneko 3,6 puntu igo da; Gipuzkoan eta Araban, aldiz, langabezia tasa 0,7 eta 3,1 puntu jaitsi da, hurrenez hurren.

BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA SAILKATZEKO INKESTA (BJA)

	2011eko 4. hiruhilekoa		Aldakuntza aurreko hiruhilekoaren aldean		Aldakuntza aurreko urteko hiruhileko beraren aldean	
	Milakoak	%	Milakoak	e.p.*	Milakoak	e.p.*
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.875,1		+ 0,2		+ 3,8	
AKTIBOAK / I HARDUERA TASA	1045,6	55,8	-4,4	-0,2	-0,7	-0,1
Gizonak	569,1	62,5	-5,8	-0,6	-11,8	-1,4
Emakumeak	476,5	49,4	+1,3	+0,1	+11,0	+1,0
BIZTANLERIA LANDUNA / ENPLEGU-TASA	928,7	64,0	-9,9	-0,5	-13,4	-0,6
Gizonak	500,1	68,2	-9,7	-1,1	-19,6	-2,4
Emakumeak	428,6	59,7	-0,2	+0,1	+6,2	+1,2
Araba/Álava	142,8	64,9	-2,6	-1,0	+0,5	+0,4
Bizkaia	478,9	61,8	-6,1	-0,7	-12,5	-1,3
Gipuzkoa	307,0	67,3	-1,2	+0,0	-1,4	+0,0
Nekazaritza	7,4		-0,4		-1,9	
Industria	218,0		-4,5		-8,4	
Eraikuntza	64,9		-2,9		-4,3	
Zerbitzuak	638,5		-2,0		+1,4	
Soldatakoak	765,5		-11,3		-8,5	
- Kontratu mugagabea dutenak	591,6		-5,2		+1,3	
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	173,9		-6,2		-9,8	
Ez soldatakoak	163,2		+1,4		-4,9	
LANGABEAK / LANGABEZI-TASAK	116,9	11,2	+5,5	+0,6	+12,7	+1,2
Gizonak	69,0	12,1	+4,0	+0,8	+7,8	+1,6
Emakumeak	47,9	10,1	+1,5	+0,3	+4,9	+0,9
16 - 24	11,4	24,2	+0,4	+2,5	-3,4	-3,8
25 - 44	73,6	12,7	+4,4	+0,9	+11,2	+2,0
45 eta gehiago	31,9	7,6	+0,7	+0,1	+4,9	+1,0
Araba/Álava	11,2	7,3	+0,4	+0,4	-5,3	-3,1
Bizkaia	78,9	14,2	+3,3	+0,6	+20,6	+3,6
Gipuzkoa	26,8	8,0	+1,8	+0,5	-2,7	-0,7
EZ-AKTIBOAK						
EZ-AKTIBOTASUN TASA	829,4	44,2	+4,5	+0,2	+4,4	+0,1
ETXEBIZITZAK	849,1		+0,9		+11,0	
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	572,1	67,4	-4,8		-1,7	
- Guztiak okupatuak	476,9	56,2	-8,4		-12,6	
- Guztiak langabeak	37,7	4,4	+1,8		+5,4	
Aktiborik gabeko etxebizitzak	277,0	32,6	+5,8		+12,7	

*e.p. = Aldea, ehunekotan

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera (BJA)

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Pilar Martínez Rollón

Tel.: +34-945-01 75 31 Faxe: +34-945-01 75 01

(BJA) Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

(BJA) Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestari buruzko datu-bankua